

GURUTZEGRAMAK

Deskribapena: Hainbat pertsona ageri dira arbel batean gurutzegramak osatzen. Irudiak kamera azkarrean ikusten dira.

Kike (off ahotsa): Gurutzegramek hizkuntza dute protagonistatzat eta pertsona asko dira entretenimendu bezela, egunero bat osatzeko ohitura dutenak.

Deskribapena: Kike eta Joxean Elozegi agertzen dira Luma aldizkarian, mahai baten inguruan elkarrizketan.

Kike: “Joxean, eta gurutzegrama bat egiterakoan zein dira fase nagusiak, edo nola egiten dituzue?”

Joxean: “Lehenengo paperaren aurrean jartzen gara, itxuratzen dugu taula, e, taula, eman dezagun hau, zortzi bider zortzi, egiten dugu horrela eta zehazten dugu alde aurretik libre izango den edo ja beltzuneak jada toki jakin batean egongo diren. Hori zehaztuta, jartzen ditugu eman dezagun hauek direla beltzuneak e eta hori jada jarriak ditugu eta orduan hasten gara zera. Hori ez bada, horrela ez bada, orduan libre baldin bada, lehenengo egiten dugu lehenengo hitza jarri, ezker eskuin, normalean, normalena izango da errerik gabekoa...”

Kike: “Zergatik?”

Joxean: “Hasierako hitz erredunik oso gutxi dagoelako euskaraz.”

Kike: “Eta behin jada hitzak dauzkagula, orduan definizioen ordua dator, ez?”

Joxean: “Definizioak eta zehazterakoan beti hartzen dugu norentzat ari garen kontuan, ezta? Bueno, ari baldin bagara oroharretan, normalenean gauza oso begi-bistakoak eta jartzen ditugu, definizioak, sinonimoak eta abar. Bestela, eman dezagun txapelketan eta, orduan bestelako definizioak egiten ditugu bihurriagoak. Definizioak egiterakoan, oso kontuan hartzen dugu gure ingurua, guk badaukagu gure lurraldea, gure kultura, gure hizkuntza eta beti ere, definizioak beti ere horren arabera tajutzen ditugu eta noski, beti ere, mundu gure mundu honetatik kanpora ere ateratzen gara.”

Kike: “Zuek gainera hitz gurutzegrama mota asko, egiten dituzue. Zer diferentzi dago batzuetatik besteetara?”

Joxean: “Aldizkari honetan, Lumaren oinarrian daude hitz gurutzatuak, baina hitz gurutzatu mota asko dago; orduan, hemen ditugu hitz gurutzatuak edo gurutzegrama klasikoa, hau da, simetriko bat esaten delako hemen agertzen dira hitzak eta definizioak. Definizioak ematen diote nortasuna taula honi baina, badira beste batzuk aldiz, hau ez da simetrikoa ez? baina eta hau da hitz gezidunak deitzen diogu. Aurrekoan ikusi dugu nola definizioak alde batean dauden eta hemen aldiz beti ere laukiaren barruan. Definizioak ez dira, ezin dira horren luzeak izan eta orduan definizioak motxagoak eta errezagoak izaten dira. Hauek dira kontrapasak, kontrapasan egiten duguna da esaldi bat edo proposatzen zaigu eta definizioen bitartez esaldia osatuko dugu eta mota askotako gauza, zenbaki, jokuak eta abar.”